



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**2023KO EKAINAREN 29KO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK**

1. (berria) Diana Urrea Herrera eta Roke Akizu Aizpiri legebiltzarkideei dei egitea.

Diana Urrea Herrerak eta Roke Akizu Aizpirik deiari erantzun diote.

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL
DÍA 29 DE JUNIO DE 2023**

1. (nuevo) Llamamiento de la parlamentaria Diana Urrea Herrera y del parlamentario Roke Akizu Aizpiri.

Diana Urrea Herrera y Roke Akizu Aizpiri acuden al llamamiento.





5. (deialdiko 2. puntua) Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasun Batzordearen irizpena, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko lege-proiektuaren gainean egindakoa. Eztatbaida eta behin betiko ebazpena. [12\09\01\00\00011]

Onetsi egin da 8/2023 Legea, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzkoa.

8/2023 LEGEA, EKAINAREN 29KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTU-LEKUEI EDO -ZENTROEI ETA ERLIJO-ANIZTASUNARI BURUZKOA

ZIOEN AZALPENEA

Antolamendu juridiko demokratiko guztiek, giza eskubideen nazioarteko araubideak bezalaxe, aitortzen dute pertsona orok duen erlijio- eta kultu-askatasuna, oinarritzko eskubidetzat hartuta eta berme juridiko handienarekin. Erlijio-askatasuna 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluan ere aitortzen da, eta Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez eta Estatuko elizekin eta erlijio-erakundeekin egindako lankidetzaren bidez garatu da. Europako esparruan, berriz, gogoan izan behar da eskubide horri zer-nolako babesa ematen dioten Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikulua eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluek.

Era berean, azken hamarkadetan erlijio-fenomenoek aldaketa handiak izan dituzte gure inguruko gizarteetan. Oro har, esan daiteke erlijioaren bilakaera hori sinesmen-aniztasunari edo kide-tza-sentimenduen aniztasunari dagokiola, bai eta gure gizarteetako zati garrantzitsu bati eragiten dioten sekularizazio-prozesuei ere. Eta euskal gizarteetan, zehazki, erlijio-aniztasuna ez da erabateko berritasuna alderdi historikotik, baina gero eta garrantzi handiagoa du sozialki, eta, hori dela-eta, gero eta beharrezkoagoa da aniztasun horren kudeaketa publiko egokia egitea. Euskal Herria, funtsean, nahikoa homogenea izan da zenbait mendez, erlijio-adierazpenei dagokienez; gaur egun, paisaia dibertsifikatua eta askotarikoa dugu, erlijio-tradizio bat baino gehiago dugulako eta, gainera,

5. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Instituciones, Gobernanza Pública y Seguridad, en relación con el proyecto de ley de lugares o centros de culto y diversidad religiosa en la Comunidad Autónoma del País Vasco. [12\09\01\00\00011]


Aprobada la Ley 8/2023, de 29 de junio, de lugares o centros de culto y diversidad religiosa en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

LEY 8/2023, DE 29 DE JUNIO, DE LUGARES O CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Todos los ordenamientos jurídicos democráticos, así como la normativa internacional de los derechos humanos, reconocen el derecho de las personas a la libertad religiosa y de culto como un derecho fundamental dotado de las máximas garantías jurídicas. La libertad de religión se reconoce también en el artículo 16 de la Constitución de 1978, que ha sido objeto de desarrollo mediante la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa, y en los acuerdos de cooperación que el Estado ha concluido con diferentes iglesias y entidades religiosas. En el ámbito europeo, debe recordarse la protección que otorga a este derecho el artículo 9 del Convenio Europeo de Derechos Humanos, así como los artículos 10 y 22 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea.

Al mismo tiempo, los fenómenos religiosos han experimentado, durante las últimas décadas, importantes transformaciones en las sociedades de nuestro entorno. Con carácter general, puede señalarse que esta evolución del hecho religioso se debe a la diversificación de creencias o de pertenencias, así como a los procesos de secularización que afectan a una parte importante de nuestras sociedades. En el ámbito específico de la sociedad vasca, la diversidad religiosa, aunque no constituye una novedad radical en términos históricos, supone un elemento cada vez más relevante socialmente, lo que justifica y requiere, en medida creciente, una adecuada gestión pública de tal diversidad. Si bien durante varios siglos el País Vasco se ha presentado fundamentalmente como una





erlijioak modu desberdinetan antolatuta daudelako.

Euskal gizartearen erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta hori hainbat faktore sozialen ondorio da. Azkenaldiko migrazio-mugimenduen eraginez, ugaritu egin dira Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan dauden erlijio-tradizioak, edo lehendik zeudenak finkatu. Horrez gain, beste prozesu sozial batzuk ere kontuan hartu behar dira; hala, esaterako, gaur egun aukera handiagoa dago talde berezien artean gizarte-harremanak garatzeko, horretara bultzatzen baitute komunikazio edo elkarreragin modu berriek, teknologiaren eta komunikazioen alorreko aurrerapenak eta bizi-esperientzien gizarte-eskaintza oparagoak. Azken batean, Europako beste gizarte garatu batzuetan bezala, euskal gizartearen ere erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta fenomeno hori, segur aski, behin betikoa da eta ez du atzera bueltarik.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ez die arau-tresna nahikorik ematen erakunde publikoei askotariko errealitate berri horrek gizartearen jardunean sorrarazi dituen gai eta eskariatako asko kudeatzeko. Arau-zehaztasunen edo kudeaketa politikoko printzipioen gabezia hori, besteak beste, kultu-lekuen edo -zentroen gaian islatzen da, erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubideaz egokiro baliatzeko parametro beharrezkoak baitira askotan, eskubide horren alderdi ageriko edo kolektiboari dagokionez. Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bigarren artikulua bermatzen du elizek, erlijio-konfesioek eta -elkarteek erlijio-xedez kultu- edo bilkura-lekuak ezartzeko duten eskubidea, oinarrizko askatasun hari datzekion zati gisa. Ildo horretatik, Estatuko legeriak kultu-leku edo -zentro gisa definitzen ditu soil-soilik otoi egiteko, erlijio-heziketa emateko edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikinak edo lokalak. Kultu-lekutzat edo -zentrotzat hartzeko ez da aski legez ezarritako helburuak betetzea; horrez gain, helburu horiek betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria ere behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak arau zehatzak ezartzen ditu kultu-lekuak edo -zentroak antolatzeko eta irekitzeko. Lege horrek aurreikuspen lotesle bat du hirigintza-diseinuaren ardura duen Administrazioarentzat: sistema orokorren sarean erreserba bat ezartzea, ezinbestean, ekipamendu kolektibo pribatuetarako, besteak beste, erlijio-zentroetarako (54.2.e artikulua).

sociedad más bien homogénea en cuanto a las expresiones religiosas, hoy en día muestra un paisaje diversificado y plural, en lo que se refiere tanto a la presencia de diversas tradiciones religiosas como a distintas formas de articulación.

La creciente diversidad religiosa que caracteriza hoy a la sociedad vasca deriva de distintos factores sociales. Los recientes movimientos migratorios han contribuido a ampliar el panorama de tradiciones religiosas presentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco o a consolidar el previamente existente. Igualmente, otros procesos sociales también deben ser tenidos en cuenta; así, por ejemplo, se encuentra la mayor posibilidad de interrelación social entre grupos diferenciados que deriva de las nuevas formas de comunicación o interacción, los avances tecnológicos y comunicativos y la mayor oferta social de experiencias vitales. En definitiva, la sociedad vasca, como otras sociedades europeas desarrolladas, presenta hoy un panorama de creciente pluralidad religiosa que posiblemente sea un fenómeno definitivo e irreversible.

No obstante, el ordenamiento jurídico vigente no dota a las instituciones públicas de instrumentos normativos suficientes para gestionar un buen número de cuestiones y demandas que surgen en la práctica social por la presencia de esta nueva realidad plural. Esta carencia de concreción normativa o de principios de gestión política se proyecta, entre otros elementos, sobre la cuestión de los lugares o centros de culto, que suponen en muchas ocasiones parámetros necesarios para el ejercicio adecuado del derecho a la libertad religiosa y de culto, en su vertiente externa o colectiva. La Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa, garantiza, en su artículo segundo, el derecho de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas a establecer lugares de culto o de reunión con fines religiosos, como una parte inherente de aquella libertad fundamental. En este sentido, la legislación estatal define como lugares o centros de culto aquellos edificios o locales destinados, de forma exclusiva, a la práctica habitual de la oración, formación o asistencia religiosa. El carácter o la naturaleza de lugar o centro de culto no se obtienen sólo por el cumplimiento de las finalidades señaladas legalmente, sino que se requiere además la correspondiente certificación que lo acredite.

La Ley vasca 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, establece reglas concretas de aplicación para la ordenación y apertura de los lugares o centros de culto. Esta ley recoge una previsión, vinculante, para la Administración encargada del diseño urbanístico, de establecer obligatoriamente en la red de sistemas generales una reserva sobre equipamientos colectivos privados,





Era berean, legearen arabera, tokiko sistemen zuzkidura-sareak izan beharko dituen elementuen artean daude erabilera erlijiosorako –besteak veste- ekipamendu pribatuak (57.2.e artikulua), bat datozenak, bestalde, lege horretan (79. artikulua) hiri-lurzoru finkatugaberako zein lurzoru urbanizagarriko aurreikusitako tokiko sistemen estandarekin, kasu bietan bizitegi-erabilera duten lurzoruetan.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen zabalak ditu hirigintza-gaietan, bai eta erlijio-profila izan dezaketen beste gai batzuetan ere; hor dira, besteak beste, osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, komunikabideak, ingurumena edo ondare historiko et kulturala. Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua adierazten du EAEko botere publikoek konpromisoa dutela, dauzkaten eskumenen alorrean, herritarren oinarriko eskubideen eta betebeharren erabilera egokia zaintzeko eta bermatzeko; beraz, behar diren neurriak hartu behar dituzte pertsonen eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetakoak izateko baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko. Erlijio-esparruko berdintasun eta askatasun hori gauzatea lortzen da, hain zuzen, Konstituzio Auzitegiak "laikotasun positiboa" izendatu duen hori praktikatzeko eta bermatzeko, zeina Estatuko, autonomia-erkidegoetako, foru-mailako zein tokian tokiko botere publiko guztien ardura baita, intentsitate berarekin, eta otsailaren 15eko 46/2001 Epaiaren bidez sartu baitzen. Halaber, 1978ko Konstituzioaren 16. artikulua aurreikusten du, mandatu edo betebeharrak bidez, botere publiko guztiek lankidetzan aritu behar dutela erlijio-konfesio guztiekin, eta hori interpretatu behar da 9.2 artikuluari lotuta, berdintasun materiala bermatzeko konfesio guztiei erlijio-askatasunerako eskubidea baliatzeko garaian.

Honenbestez, EAEko botere publikoek neurri positiboak hartu behar dituzte –neurri arauemaileak barne– beren lurraldean oinarriko eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta eskubide horien barruan sartzen da, noski, erlijio-askatasuna. Neurri horiek guztiz bat etorri behar dute bereizkeriarik ezaren printzipioarekin, eta antolamendu juridikoaren printzipio operatiboak errespetatu behar dituzte; horien artean, batik bat, segurtasun juridikoa.

Erlijio-askatasuna baliatzeko eskubidea modurik publikoan, zehatzen eta argienean islatzen da erlijio-aniztasunari erantzuten dioten eta tokiko errealitate sozioerlijioso bakoitzaren arabera irekita dauden leku edo zentro normalizatuak izateko aukeraren bidez. Horrek guztiak justifikatzen du erlijio-

entre ellos los centros de carácter religioso (artículo 54.2.e). Del mismo modo, la norma incluye entre los elementos necesarios de la red dotacional de los sistemas locales unos equipamientos privados destinados, entre otros, al uso religioso (artículo 57.2.e) que tendrían acomodo también en los estándares de sistemas locales, igualmente previstos en la misma ley (artículo 79), tanto para el suelo urbano no consolidado como para el urbanizable, en ambos casos, de carácter residencial.

La Comunidad Autónoma del País Vasco dispone de amplias competencias en materia urbanística, así como en otras materias que pueden tener un perfil de naturaleza religiosa, tales como sanidad, asistencia social, educación, medios de comunicación, medio ambiente o patrimonio histórico y cultural. El artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía señala el compromiso de los poderes públicos vascos para, en el ámbito de sus competencias, velar y garantizar por el adecuado ejercicio de los derechos y deberes fundamentales de la ciudadanía, lo que se traduce en el deber de adoptar las medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean efectivas y reales. La materialización de esa igualdad y libertad en la esfera religiosa se consigue a través de la práctica y garantía de lo que el Tribunal Constitucional ha denominado "laicidad positiva", que incumbe con la misma intensidad a todos los poderes públicos de orden estatal, autonómico, foral o local, y que fue introducida a través de la Sentencia 46/2001, de 15 de febrero. Asimismo, el artículo 16 de la Constitución de 1978 prevé la cooperación con el conjunto de confesiones religiosas por parte de todos los poderes públicos, que ha de interpretarse en relación con el artículo 9.2, a los efectos de garantizar la igualdad material en el ejercicio del derecho a la libertad religiosa a todas las confesiones.

En consecuencia, los poderes públicos vascos tienen la obligación de adoptar medidas positivas, incluyendo las de carácter normativo, para asegurar el ejercicio de los derechos fundamentales en su territorio, lo que abarca, desde luego, la libertad religiosa; medidas que deben adoptarse en plena armonía con el principio de no discriminación y con respeto a los principios operativos del ordenamiento jurídico, entre los que destaca el de seguridad jurídica.

El ejercicio de la libertad religiosa encuentra su expresión más pública, concreta y manifiesta en la posibilidad de contar, en función de cada realidad socio-religiosa local, con espacios y centros de culto normalizados que respondan a su diversidad religiosa. Todo lo anterior justifica la necesidad de la





aniztasuna eta erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubidea baliatzea –bere dimensio kolektiboan zein indibidualean– erraztuko duen araudia onartzeko beharra, arlo horretan eraginkortasunez erantzun diezaien Autonomia Estatuaren irakurketa eguneratuak dakartzan betebeharrei.

Lege honek, bada, erlijio-askatasunerako eskubidea babesten du, kultu-lekuak edo -zentroak ireki eta erabiltzeari dagokionez, berme juridiko handienak dituen oinarritzko eskubidetzat hartuta.

Horregatik, lehenengo kapituluan ezarrita daude legearen xedea, oinarri dituen printzipioak, aplikazio-eremua eta kultu-lekuen edo -zentroen definizioa.

Legearen bigarren kapituluan erlijio-xedeetarako titulartasun publikoko ekipamenduen edo espazioen noizbehinkako erabilera arautzen da, eta lurzoruen eta eraikinen erabilerak antolatzeke tresnak kultu-zentroak ezartzeari dagokionez.

Hirugarren kapituluko artikuluek, berriz, honako alderdi hauei buruzko manuak zehazten dituzte: hirigintzako lizentziak, kultu-lekuen edo -zentroen irekiera-komunikazioa, sailkatutako jardueren araubidearen aplikazioa, beste jarduerabaimen batzuk, kultu-lekuek edo -zentroek bete beharreko baldintza tekniko eta materialak, bai eta irekitze-baldintzak ez betetzearen aurkako neurriak ere.

Legearen laugarren kapituluak Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren sorrera arautzen du, erlijioen arteko elkarrizketarako eta elkarbizitzarako lehentasunezko esparru izan dadin. Aholkua eta informazioa ematea izango du eginkizun, erlijio-askatasunaren eta kultu-askatasunaren erabilerari eragin diezaioketen euskal erakundeek ekimen eta erabakietan. Euskadiko Erlijioen Kontseiluak Euskadiko erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboa sustatuko du, eta elkargune izango da erakunde, erlijio-konfesio, entitate akademiko eta gizarte zibileko antolakundeentzat. Hala, elkarrizketarako eta adostasunerako foro gisa egituratuko da, gure gizartearen aniztasuna babesteko eta sustatzeko lagungarri diren diagnostikoak partekatu eta jarduerak proposatzea xede hartuta.

Azken batean, legeak, gure antolamenduaren printzipioekin bete-betea bat etorruta, erantzun arauemaile koherentea eta bideragarria eman nahi dio oinarritzko eskubide bati, zeina estu-estu lotuta baitago errealitate sozial berriarekin, hartara Estatuaren mandatuak betetzeko; alegia, gizarte

adopción de una normativa que facilite el ejercicio del derecho a la libertad religiosa y de culto en su dimensión colectiva e individual. Una normativa que, en este ámbito, responda de modo efectivo a las obligaciones que derivan de una lectura actualizada del Estatuto de Autonomía.

Así, la presente ley protege el derecho a la libertad religiosa, en relación con la apertura y utilización de lugares o centros de culto, como un derecho fundamental dotado de las mayores garantías jurídicas.

En coherencia con todo ello, el capítulo primero establece el objeto de la ley, los principios que la inspiran, su ámbito de aplicación y la definición de lugar y centro de culto.

El capítulo segundo de la ley regula la utilización esporádica de equipamientos o espacios de titularidad pública para fines religiosos, y los instrumentos de ordenación de los usos del suelo y los edificios en relación con el establecimiento de centros de culto.

El articulado del capítulo tercero concreta los preceptos relativos a licencias urbanísticas, a la comunicación de apertura de lugares o centros de culto, a la aplicación del régimen de actividades clasificadas, a otras autorizaciones de actividad, así como a las condiciones técnicas y materiales de obligado cumplimiento para los lugares o centros de culto, y a las medidas contra el incumplimiento de las condiciones de apertura.

El capítulo cuarto de la ley está destinado a regular la creación del Consejo Interreligioso Vasco con carácter de marco preferente de diálogo interreligioso para la convivencia. Se dota a este consejo de funciones de asesoramiento e informe en aquellas iniciativas y decisiones de las instituciones vascas que puedan afectar de forma específica al ejercicio de la libertad religiosa y de culto. El Consejo Interreligioso Vasco se proyecta como el motor dinamizador de la gestión positiva de la diversidad religiosa en Euskadi y como punto de encuentro de instituciones, confesiones religiosas, entidades académicas y organizaciones de la sociedad civil. Se configura, en última instancia, como un foro de diálogo y acuerdo en el que compartir diagnósticos y proponer actuaciones coherentes con la protección y promoción de la pluralidad de nuestra sociedad.

En definitiva, la ley pretende ofrecer una respuesta normativa coherente, viable y plenamente conforme con los principios de nuestro ordenamiento a una realidad social emergente e íntimamente ligada al ejercicio de un derecho fundamental, cumpliendo, de esta manera, el mandato estatutario de facilitar la





demokratiko eta plural honetan benetako berdintasun eraginkorra lortzeko, bai herritar guztientzat bai eta herritarrek beren eskubideak baliatuz osatzen dituzten taldeentzat ere.

LEHENENGO KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Lege honen helburuak dira: gure gizartearen bizikidetzaren eta erlijio-aniztasuna babestea; elkarrizketarako eta adostasunerako mekanismoak ezartzea, aniztasun hori modu positiboan kudeatzeko, eta, kultu-lekuak edo -zentroak ireki eta erabiltzeari dagokionez, erlijio-askatasunaren oinarriko eskubidea bermatzea, bai pertsonen bai elizei, erlijio-konfesioei eta -elkarteei, inolaz ere onartu gabe bereizkeriak egitea elizen, erlijio-konfesioen eta -elkarteen artean.

2. artikulua. Printzipioak eta eskubideak

1. Lege honen printzipioak honako hauek dira:
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen barruan erlijio- eta kultu-askatasunaz banaka zein taldeka baliatzeko berme eraginkorra ematea. Eskubide horietaz baliatzeko mugak Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera baino ezin izango dira ezarri.
 - b) Euskal gizartearen dauden erlijio-elkarteen eta -konfesioen arteko tratu-berdintasuna bermatzea, bai kultu-lekuak edo zentroak irekitzeari dagokionez, bai lege honen arabera ezarritako funtzionamendu-kontrolari dagokienez.
 - c) Segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzarik hoberenak bermatzea kultuko eta beste erlijio-erabilera batzuetarako lekuak edo zentroak irekitzeko eta erabiltzeko orduan, indarreko arau-esparruan ezarritakoarekin bat etorrira.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden pertsonen eta elizek, erlijio-konfesioek eta -elkarreek eskubidea izatea erlijio- eta kultu-askatasunaz berdintasun-baldintzetan baliatzeko leku aproposak edukitzea.

igualdad real y efectiva de toda la ciudadanía y de los grupos en los que se integra en el ejercicio de sus derechos dentro de una sociedad democrática y plural.

CAPÍTULO PRIMERO DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto

El objeto de la presente ley es proteger la convivencia y la diversidad religiosa de nuestra sociedad, establecer mecanismos de diálogo y acuerdo para una gestión positiva de las mismas, y garantizar, en relación con la apertura y utilización de lugares o centros de culto, el ejercicio del derecho fundamental a la libertad religiosa de las personas y de las diferentes iglesias, confesiones y comunidades religiosas, todo ello sin que pueda producirse ninguna discriminación entre las mismas.

Artículo 2. Principios y derechos

1. Los principios que inspiran la presente ley son:
 - a) La garantía efectiva del ejercicio individual y colectivo de la libertad religiosa y de culto dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las limitaciones al ejercicio de estos derechos solo podrán realizarse de acuerdo con lo indicado en la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa.
 - b) La garantía de igualdad de trato entre las diversas comunidades y confesiones religiosas presentes en la sociedad vasca por lo que se refiere tanto a la apertura de lugares o centros de culto como a los controles sobre su funcionamiento que resulten procedentes de acuerdo con esta ley.
 - c) La garantía de unas condiciones óptimas de seguridad y salubridad en la apertura y utilización de los lugares o centros destinados al culto y otras finalidades religiosas, de acuerdo con lo establecido en el marco normativo vigente.
 - d) El derecho de las personas y de las diferentes iglesias, confesiones y comunidades religiosas presentes en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco a disponer de lugares destinados al ejercicio de la libertad





- religiosa y de culto en condiciones de igualdad.
- e) Erliijo-konfesio eta -elkarte desberdinen arteko bizikidetzeta eta errespetua sustatzea.
 - f) Instituzioen laikotasuna bermatzea.
2. Lege honen ondorioetarako, honela ulertuko da erlijiio- eta kultu-askatasuna baliatzeko eskubidean gertatzen den zuzeneko eta zeharkako bereizkeria:
- a) Zuzeneko bereizkeria gertatzen da eliza, erlijiio-konfesio edo -elkarte batek, kultu-lekuen edo -zentroen irekierarekin eta funtzionamenduari lotutako alderdiren batean, tratu desberdina jasotzen duenean beste eliza, erlijiio-konfesio edo -elkarte batek antzeko egoera batean jaso duenaren aldean, salbu eta tratu-desberdintasuna modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat badago eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak egokiak eta beharrezkoak badira.
 - b) Zeharkako bereizkeria gertatzen da udalaren hirigintza-antolamenduko plan batek, lizentzia edo emakida batek edo irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat eragiten dionean eliza, erlijiio-konfesio edo -elkarte bati beste batzuen aldean, kultu-leku edo -zentro bat edukitzeko eskubidean. Ez dago zeharkako bereizkeriarik, baldin eta jarduketara hori modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat badago eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak egokiak eta beharrezkoak badira.
- e) El fomento de la convivencia y el respeto entre las diferentes confesiones y comunidades religiosas.
- f) La garantía del laicismo de las instituciones.
2. A los efectos de la presente ley, se entenderá por discriminación directa e indirecta en el ejercicio del derecho a la libertad religiosa y de culto lo siguiente:
- a) Se produce discriminación directa cuando una iglesia, confesión o comunidad religiosa recibe, en algún aspecto relacionado con la apertura y funcionamiento de lugares o centros de culto, un trato diferente del recibido por otra iglesia, confesión o comunidad en una situación análoga, siempre que la diferencia de trato no tenga una finalidad legítima que la justifique, objetiva y razonablemente, y los medios utilizados para alcanzar dicha finalidad sean adecuados y necesarios.
 - b) Se produce discriminación indirecta cuando un plan de ordenamiento urbanístico municipal, una licencia, una concesión, un criterio o una práctica ocasionan una desventaja a una iglesia, confesión o comunidad religiosa, respecto a otras en el derecho a disponer de un lugar o centro para el culto. No existe discriminación indirecta si la actuación tiene una finalidad legítima que la justifique, objetiva y razonablemente, y los medios para alcanzar esta finalidad son adecuados y necesarios.

3. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Lege hau aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatuta dauden eta Erliijo Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan sartzen diren kultu-lekuei edo -zentroei, bai eta noizean behin erlijiio-jardueraren baterako erabiltzen diren guztiak eta ekipamendu publikoei ere.

Artículo 3. Ámbito de aplicación

1. La presente ley será aplicable a los lugares o centros de culto ubicados en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco e incluidos en el ámbito de aplicación de la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa, así como a todos aquellos espacios y equipamientos públicos que se destinan, esporádicamente, a una actividad de naturaleza religiosa.





2. Lege honen aurreikuspenak ez zaizkie aplikatuko ospitaleetako, laguntza-zentroetako, ikastetxeetako, hilerrietako, beilatokitako eta espetxeetako kultu-lekuei edo -zentroei, ez eta beste jarduera nagusi batzuetara zuzendutako titulartasun publiko zein pribatuko guneetakoei ere, horiek guztiak dagokien araudiaren arabera arautzen baitira; dena dela, araudia aplikatzeko garaian, ahal dela, lege honen iturburu diren printzipioak aintzat hartzeko ahalegina egingo da.
3. Lege honen aplikaziotik kanpo geratzen dira, beren-beregi, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan sartuta dauden kultu-lekuak edo -zentroak, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren bidez arautzen baitira.

4. artikulua. Kultu-lekuaren edo -zentroaren definizioa

Kultu-lekutzat edo -zentrotzat hartzen dira jendearentzat zabalik dauden eta nagusiki eta modu iraunkorrean kulturako, erlijio-xedeko bileretarako eta erlijio-heziketa edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikinak, lokalak edo areto erantsiak, titulartasun publiko zein pribatukoak, baldin eta, Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, berariaz halakotzat aitortu baditu dagokion elizak, erlijio-konfesioak edo -elkarteak, zeinak nortasun juridikoa eduki behar baitu.

BIGARREN KAPITULUA ERLIJIO- ETA KULTU-ASKATASUNA HIRIGINTZA- ANTOLAMENDUAREN ESPARRUAN

5. artikulua. Titulartasun publikoko ekipamenduak edo guneak noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea

1. Erlijio-konfesioek eta -elkartek noizean behin erlijio-jarduerak gauzatzeko, administrazio publikoek tratu berdina emango diete erlijio-konfesio eta -elkarte guztiei, kasuaren arabera aplikatzekoa zaien araudiarekin bat etorrita, arlo hauetan:
 - a) Ekipamendu eta gune publikoen erabilera pribatiborako lagapenak eta baimenak.
 - b) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa.

2. Las previsiones de la presente ley no serán aplicables a los lugares o centros de culto situados en centros hospitalarios, asistenciales o educativos, en cementerios, en tanatorios y en centros penitenciarios, así como a los ubicados en espacios de titularidad pública o privada destinados a otras actividades principales, todos los cuales se rigen por la correspondiente normativa, si bien en su aplicación se procurará atender a los principios que inspiran esta ley.
3. Quedan expresamente excluidos de la aplicación de esta ley los centros de culto incluidos en el Registro de la Comunidad Autónoma del País Vasco del Patrimonio Cultural Vasco, que se rigen por lo establecido en la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco.

Artículo 4. Definición de lugar o centro de culto

Se entiende por lugar o centro de culto el edificio, local o dependencia aneja de pública concurrencia, sea cual fuere su titularidad, pública o privada, destinado, principalmente y de forma permanente, a la práctica del culto, a la realización de reuniones de finalidad religiosa y a la formación o la asistencia de tal carácter, siempre y cuando haya sido reconocido expresamente como tal centro por la correspondiente iglesia, confesión o comunidad religiosa con personalidad jurídica, de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa.

CAPÍTULO SEGUNDO LIBERTAD RELIGIOSA Y DE CULTO EN EL MARCO DE LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

Artículo 5. Utilización esporádica de equipamientos o espacios de titularidad pública para fines religiosos

1. Para llevar a cabo de forma esporádica actividades de carácter religioso, las administraciones públicas dispensarán un trato igualitario, de conformidad con la normativa que en función del caso sea de aplicación, a todas las confesiones y comunidades religiosas respecto:
 - a) A las cesiones y autorizaciones de uso privativo de equipamiento y espacios públicos.
 - b) Al uso privativo del dominio público.





- | | |
|---|---|
| <p>c) Bide publikoaren aldi baterako okupazioa.</p> <p>d) Ondare-ondasunen lagapena.</p> <p>2. Aurreko paragrafoan aipatzen den jabari publikoaren erabilera pribatiboari dagokionez, konfesio batek baino gehiagok erabiltzeko lekuak, lokalak edo eraikinak laga ahal izango dituzte udalek, lege honetan aipatzen diren jarduerak noizean behin egiteko, baldin eta jabari publikoko ondasunaren okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin egiten bada.</p> | <p>c) A la ocupación temporal de la vía pública.</p> <p>d) A la cesión de bienes patrimoniales.</p> <p>2. A los efectos del uso privativo del dominio público a que se refiere el apartado anterior, los ayuntamientos podrán destinar lugares, locales o edificios de uso público a fines pluriconfesionales para la realización esporádica de las actividades a que se refiere esta ley, siempre y cuando la ocupación del bien de dominio público tenga lugar con instalaciones desmontables o con bienes muebles.</p> |
|---|---|

6. artikulua. Erljio-erabilerak zehaztea hiri-antolamenduko udal planetan

1. Lege honen helburuak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, hiri-antolamendurako aurrerantzean onartuko dituzten planetan, erreserbak egin beharko dituzte erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatueterako, dagoen lurzorua kontuan hartuta eta udalerrri bakoitzean hautemandako premien arabera.
2. Betebehar hori betetzeko, udalek ezingo dute jardun erlijio- eta kultu-askatasunaren oinarriko eskubidean zuzeneko nahiz zeharkako bereizkeriarik edo mugatze arbitrariorik eragiten duten irizpideekin; batez ere, erreserbak egin edo esleitu behar dituztenean erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatueterako, udalerrri bakoitzean hautemandako premien arabera.
3. Udalek beren hirigintza-ahalmenak baliatuko dituzte, erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatueterako erreserbak zehazteko, udalerrri bakoitzean hautemandako premien arabera, betiere erkidegoaren interes orokorra zainduta eta elkarbizitza eta gizarte-kohesioa sustatuta; horretarako, erlijio-elkarteen erlijio- eta kultu-askatasuna eta pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzen dituzten erabakiak eta neurriak hartuko dituzte.
4. Udalen hirigintza-antolamenduko prozesuetan, nortasun juridikoa egiaztatuta daukaten elizek, erlijio-konfesioek edo -elkarteek parte hartuko dute kultu-lekueterako eta erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako guneak

Artículo 6. Determinación de los usos religiosos por los planes municipales que establecen la ordenación urbanística

1. Para el cumplimiento de los fines de la presente ley, los planes municipales que establecen la ordenación urbanística, que en el futuro aprueben los ayuntamientos del País Vasco, deberán contemplar, en función de la disponibilidad de suelo existente, reservas para equipamientos colectivos privados de carácter religioso, de acuerdo con las necesidades que hayan sido detectadas en cada municipio.
2. En el cumplimiento de esta obligación, los ayuntamientos no podrán actuar con criterios que puedan producir una discriminación directa o indirecta, o una restricción arbitraria, en el ejercicio del derecho fundamental de libertad religiosa y de culto, en especial a la hora de decidir o asignar reservas para equipamientos colectivos privados de carácter religioso, de acuerdo con las necesidades que hayan sido detectadas en cada municipio.
3. Los ayuntamientos ejercerán sus facultades urbanísticas para determinar reservas para equipamientos colectivos privados de carácter religioso de acuerdo con las necesidades que hayan sido detectadas en cada municipio, salvaguardando el interés general de la comunidad y promoviendo la convivencia y la cohesión social, a través de decisiones y medidas respetuosas con el ejercicio de la libertad religiosa y de culto de las diferentes comunidades religiosas, y con la dignidad y los derechos de todas las personas.
4. En los procesos de planeamiento urbanístico municipal, las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas que tengan acreditada su personalidad jurídica participarán en el procedimiento de determinación y asignación





zehazteko eta esleitzeko prozeduran, hirigintza arloko legedian aurreikusitako kasuetan eta moduan.

5. Erliijo-erabileretarako lurzorua zehazteko eta esleitzeko prozeduran, indarrean dagoen hirigintza-araudi autonomikoa aplikatuko da, bai eta dagokion foru-araua eta horiek garatzeko erregelamenduzko xedapenak eta udal-ordenantzak ere.

7. artikulua. Hileta-zerbitzuak

1. Lege honen helburuak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek erliijo-konfesio eta -elkarte desberdinen kultuen baitan hiletak egiteko aukera bermatu eta espazioak egokitu dituzte.
2. Era berean, hileta zibilak eta azken agurrak egiteko espazioak egokitu eta eskaintzea ere udalen ardura izango da, indarrean dagoen udalen legediaren baitan.

HIRUGARREN KAPITULUA HIRIGINTZA-LIZENTZIAK, KULTU-LEKUAK EDO -ZENTROAK IREKITZEKO KOMUNIKAZIOA, SAILKATUTAKO JARDUEREN ARAUBIDEAREN APLIKAZIOA ETA BESTE BAIMEN BATZUK

8. artikulua. Kultu-leku edo -zentroek izan beharreko hirigintza-lizentziak

Kultu-lekuek edo -zentroek eta gainerako erliijo-ekipamenduek hirigintza-araudian ezarritako hirigintza-lizentziei buruzko araubide orokorrean ezarritakoa bete beharko dute, bai lokalak eraikitzeke eta egokitzeke obrak egiteko, bai lokalok irekitzeke.

9. artikulua. Kultu-leku edo -zentroak irekitzeko komunikazioa

Jendearentzako kultu-leku edo -zentro bat irekitzeko, komunikazio-araubidea bete beharko da, bat etorrita Tokiko Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin (edo hori gerora garatu edo aldatuko duen araudian ezarritakoarekin). Kultu-leku edo -zentro bat ireki baino lehen, aldeaz aurretik komunikazio bat aurkeztu behar zaio udalari, bai eta Erliijo Erakundeen

de los espacios reservados a lugares de culto y equipamientos religiosos, en los supuestos y en los términos establecidos en la legislación urbanística.

5. En el procedimiento de determinación y asignación del suelo destinado a usos religiosos se aplicará la legislación urbanística autonómica vigente, así como la normativa foral respectiva y las disposiciones reglamentarias y ordenanzas municipales que las desarrollen.

Artículo 7. Servicios funerarios

1. Para el cumplimiento de los fines de la presente ley, los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco garantizarán la posibilidad de celebrar funerales dentro de los cultos de las diferentes confesiones y comunidades religiosas y acondicionarán espacios para ello.
2. Asimismo, corresponderá a los ayuntamientos el acondicionamiento y la puesta a disposición de espacios para la realización de funerales civiles y últimas despedidas, en el marco de la legislación municipal vigente.

CAPÍTULO TERCERO LICENCIAS URBANÍSTICAS, COMUNICACIÓN DE APERTURA DE LUGARES O CENTROS DE CULTO, APLICACIÓN DEL RÉGIMEN DE ACTIVIDADES CLASIFICADAS Y OTRAS AUTORIZACIONES

Artículo 8. Licencias urbanísticas exigibles a los lugares o centros de culto

Los lugares o centros de culto y demás equipamientos religiosos estarán sometidos al régimen general de las licencias urbanísticas establecido en la normativa urbanística, tanto para las obras de construcción y adecuación de los locales como para su apertura.

Artículo 9. Comunicación de apertura de lugares o centros de culto

La apertura de un nuevo lugar o centro de culto de concurrencia pública se encuentra sujeta al régimen de comunicación, de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoséptima de la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, o a la normativa vigente que la desarrolle o sustituya. Antes de la apertura de un lugar o centro de culto debe presentarse una comunicación previa ante el ayuntamiento, acompañada del certificado emitido





Erregistroak igorritako ziurtagiria ere, zeinetan elizaren, erlijio-konfesioaren edo -elkartearen nortasun juridikoa egiaztatuko baita eta kultu-zentroaren kokapena azalduko baita.

10. artikulua. Udalaren esku-hartzea jardura sailkatuen alorrean, kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak irekitzeko

1. Kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak ireki eta funtzionamenduan jartzeko, sailkatutako jardura eta instalazioen araubidea bete beharko da, zeina araututa baitago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean edo hura gerora garatzen edo aldatzen duen araudian.
2. Eusko Jaurlaritzak beharrezko diren mekanismoak ezarriko ditu, erregelamenduz, aurreko artikuluan aurreikusitako aurretiazko komunikazioa egokiro integrazteko sailkatutako jardueren araubidearen edo hirigintza-araudiaren ondoriozko beste prozedura batzuekin.

11. artikulua. Lizentzia lortzeko egiaztapena eta irekitzeko komunikazioa aurkeztea

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten elizek, erlijio-konfesioek eta -elkarrekin, hirigintza-lizentzia eskatzeko eta kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko komunikazioa aurkezteko, beren nortasun juridikoa egiaztatu beharko dute Erlijio Erakundearen Erregistroak emandako egiaztagiraren bidez, non kultu-zentroaren kokapena jasoko den.

12. artikulua. Beste baimen batzuk

Kultu-leku edo -zentroetan berariazko jarduerak ez diren bestelako jarduerak egiten badira, aplikatu beharrezko sektore-arauetan ezarritako baimenak eduki beharko dira.

13. artikulua. Segurtasunari eta osasungarritasunari buruzko baldintza materialak eta teknikoak, kultu-lekuek edo -zentroek nahitaez bete beharrekoak

1. Jendeari irekitako kultu-lekuek edo -zentroek behar diren baldintza materialak eta teknikoak eduki behar dituzte, indarrean dagoen araudia bete eta erabiltzaileen segurtasuna eta

por el Registro de Entidades Religiosas que acredite la personalidad jurídica de la iglesia, confesión o comunidad religiosa y en el que conste la ubicación del centro de culto.

Artículo 10. Intervención municipal en materia de actividades clasificadas para la apertura de lugares o centros de culto y demás equipamientos religiosos

1. La apertura y el funcionamiento de lugares o centros de culto y demás equipamientos religiosos se hallan sometidos al régimen de actividades e instalaciones clasificadas regulado en la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, o a la normativa vigente que la desarrolle o sustituya.
2. El Gobierno Vasco establecerá reglamentariamente los mecanismos necesarios para integrar la comunicación previa, prevista en el artículo anterior, con otros procedimientos derivados del régimen de actividades clasificadas o de la normativa urbanística.

Artículo 11. Acreditación para la obtención de licencias y presentación de la comunicación de apertura

Las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas que desarrollen su actividad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para poder solicitar la licencia urbanística y presentar la comunicación de apertura de lugares o centros de culto, habrán de acreditar su personalidad jurídica a través de un certificado emitido por el Registro de Entidades Religiosas en el que conste la ubicación del centro de culto.

Artículo 12. Otras autorizaciones

Cuando en los lugares o centros de culto se lleven a cabo actividades diferentes de las propias de tales lugares o centros de culto deberán disponer de las autorizaciones establecidas por la normativa sectorial que les sea de aplicación.

Artículo 13. Condiciones técnicas y materiales sobre seguridad y salubridad de obligado cumplimiento para los lugares o centros de culto

1. Los lugares o centros de culto de pública concurrencia deberán reunir las condiciones técnicas y materiales necesarias para garantizar la seguridad de las personas usuarias y la higiene de las instalaciones,





instalazioen higiena bermatzeko, bai eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko ere.

2. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bat onartuko du jendeari irekitako kultu-lekuek bete behar dituzten baldintza teknikoak eta materialak ezartzeko, hartara segurtasuna, osasungarritasuna, irisgarritasuna, babes akustikoa, edukiera eta ebakuazioa bermatzeko eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, kultu-lekuon tamaina eta kokapena kontuan hartuta.
3. Baldintza horiek, kasu guztietan, dagokien helburuarekiko egokiak eta neurrikoak izan behar dute, indarrean den araudian ezarritakoaren arabera, eta ezingo dute inola ere eragotzi edo zaildu, era arbitrarioan edo arrazoirik gabean, zentro horietan gauzatzen den jarduera.

14. artikulua. Kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko baldintzak ez betetzearen kontrako neurriak


1. Dagokion udalak exijituko du indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintza tekniko eta material guztiak bete daitezela.
2. Baldintza horiek betetzen ez badira, udalak kultu-zentroaren edo -lekuaren titular den erakunde erlijiosoari errekerimendua egingo dio hautemandako gabezia zuzendu dezan; horretarako, legez ezarritako epea emango dio, behar diren obren ezaugarrien eta baldintza teknikoaren arabera.
3. Emandako epea igaro eta errekerimenduari jaramonik egiten ez bazaio, udalak, ebazpen arrazoitu baten bidez eta ukitutako erlijio-entitateari entzun ondoren, kultu-zentroa itxi edo zigilatu ahal izango du, kultu-zentroak hirigintzako lizentzia izan arren edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu arren, baldin eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo osasungarritasun publikoa arriskuan jartzen dituzten gabeziak baditu.
4. Neurri horiei eutsiko zaie neurriok hartzeko arrazoiak mantentzen diren bitartean.
5. Hala ere, erlijio- eta kultu-askatasunaren erabilera bermatzeko, udalak, ebazpen arrazoitu baten bitartez, establezimendua

cumpliendo con la normativa vigente, así como para evitar molestias a terceras personas.

2. El Gobierno Vasco aprobará un reglamento en el que se concreten las condiciones técnicas y materiales de seguridad, salubridad, accesibilidad, protección acústica, aforo, evacuación, así como las destinadas a evitar molestias a terceros, que deben cumplir los lugares de culto de pública concurrencia, teniendo en cuenta su tamaño y ubicación.
3. En todo caso, estas condiciones deben ser adecuadas y proporcionadas, según lo establecido en la normativa en vigor, a la finalidad para la que han sido establecidas, y en ningún caso podrán impedir ni dificultar de forma arbitraria o injustificada la actividad que se lleva a cabo en dichos centros.

Artículo 14. Medidas contra el incumplimiento de las condiciones de apertura de lugares y centros de culto

1. El ayuntamiento correspondiente exigirá el cumplimiento de todas las condiciones técnicas y materiales previstas en la normativa en vigor.
2. En el supuesto de que no se cumplan tales condiciones, el ayuntamiento requerirá a la entidad religiosa titular del centro o lugar de culto para que subsane la carencia detectada, concediendo el plazo legalmente establecido para ello, de conformidad con las características y condiciones técnicas de las obras necesarias.
3. Transcurrido el plazo concedido al efecto sin atender a dicho requerimiento, el ayuntamiento podrá, mediante resolución motivada y previa audiencia de la entidad religiosa afectada, proceder al cierre, clausura o precinto de aquellos centros de culto que, aun teniendo licencia urbanística o habiendo presentado la comunicación previa, presenten deficiencias que hagan peligrar la seguridad de las personas y bienes o la salubridad pública.
4. Las medidas adoptadas se mantendrán mientras subsistan las razones que motivaron su adopción.
5. No obstante, y para garantizar el ejercicio de la libertad religiosa y de culto, el ayuntamiento podrá acordar, mediante resolución motivada,





ixteko neurria ordeztea erabaki ahal izango du, eta, neurri horren ordeze, instalazioen zati bat zigitatzea erabaki ahal izango du, baldin eta pertsonen segurtasuna eta osasungarritasuna bermatuta geratzen badira.

6. Manu hau betetzeko hartzen diren neurriek ez dute zehapen-izaerarik izango, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. Neurri horien helburu bakarra izango da oinarritzko eskubideak babestea, pertsonen segurtasuna eta osasuna zaintzea eta ingurumena babestea.

LAUGARREN KAPITULUA EUSKADIKO ERLIJOEN KONTSEILUA SORTZEA

15. artikulua. Euskadiko Erljioen Kontseilua sortzea, kontsulta-organoa izan dadin

1. Euskadiko Erljioen Kontseilua sortzen da, instituzioen eta erlijio-konfesioen eta -elkarteen arteko elkarriketarako eta lankidetzarako organoa izan dadin. Kontseiluaren helburua erlijioen eta kulturen elkarbizitza babestea eta bultzatzea da, oinarritzat hartuta erlijio-aniztasunari eta bere erlijio-adierazpen guztien eskubideei eta betebeharrei zor zaien errespetua.
2. Euskadiko Erljioen Kontseilua kontsulta-organoa izango da; hala, aholkua eta informazioa emango du Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko instituzioen eta elizen, erlijio-konfesioen eta -elkarteen ekimen edo erabakien gainean, baldin eta ekimen edo erabaki horiek berariaz eragin badiezaiokete erlijio-askatasunaren eta kultu-askatasunaren erabilerari.
3. Kontseilu horretan ordezkariak izango dituzte Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta elizek, erlijio-konfesioek eta -elkarsteek, baita adituek eta lege honen aplikazioan interes kualifikatua duten herritarren elkarsteek ere.
4. Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez zehaztuko dira Euskadiko Erljioen Kontseiluaren osaera, eginkizunak eta funtzionamendu-arauak. Kontseiluaren osaeran emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izatea sustatuko da, eta partaideek

siempre y cuando quede garantizada la seguridad y salubridad de las personas, la sustitución de la medida de cierre del establecimiento por el recinto parcial de las instalaciones.

6. Ninguna de las medidas que se lleguen a adoptar en cumplimiento de este precepto tendrá carácter sancionador, todo ello sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar. Su finalidad deberá orientarse exclusivamente a la preservación de los derechos fundamentales, a la salvaguarda de la seguridad y salud de las personas, así como a la preservación del medio ambiente.

CAPÍTULO CUARTO CREACIÓN DEL CONSEJO INTERRELIGIOSO VASCO

Artículo 15. Creación del Consejo Interreligioso Vasco como órgano consultivo

1. Se crea el Consejo Interreligioso Vasco, como órgano de diálogo y colaboración institucional con las diferentes confesiones y comunidades religiosas. Su misión será preservar y promover una convivencia interreligiosa e intercultural basada en el respeto al pluralismo religioso y a los derechos y deberes de todas sus expresiones.
2. El Consejo Interreligioso Vasco tendrá carácter consultivo, para el asesoramiento e informe en aquellas iniciativas o decisiones de las instituciones vascas y de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas de la Comunidad Autónoma del País Vasco que puedan afectar de forma específica al ejercicio de la libertad religiosa y de culto.
3. Estará integrado por representantes del Gobierno Vasco, de las diputaciones forales, de los ayuntamientos, de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas y por personas de reconocida competencia y asociaciones ciudadanas con interés cualificado en la aplicación de la presente ley.
4. La composición, funciones y normas de funcionamiento del Consejo Interreligioso Vasco se determinarán por decreto del Gobierno Vasco. En dicha composición se promoverá una representación equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada.





gaikuntza, konpetentzia eta prestakuntza egokia izango dute.

16. artikulua. Eginkizunak

Euskadiko Erlijioen Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu, bestek beste:

- a) EAEko instituzioei aholkularitza ematea eta erlijio-askatasuna baliatzeko eta bereizkeria oro saihesteko politikak garatzen laguntzea.
- b) EAEko instituzioei aholkularitza ematea eta haiekin batera lan egitea erlijioen eta kulturen arteko elkarbizitza integratu eta integratzailea sustatzeko, erlijioan oinarritutako terrorismo, indarkeria, arrazakeria, xenofobia edo beste inposatze, derrigortze edo bereizkeria mota orenen kontrakoa.
- c) Txostenak eta irizpenak egitea, instituzioek berek edo erlijio-elkarteek eskatuta.
- d) Kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko prozedura hasi baino lehen aholku ematea instituzioek eta erlijio-konfesioek planteatzen dituzten kontsultei buruz.
- e) Udalen hirigintza-plangintzen jarraipena egitea, diagnostikoak eta mapak eratzeko elizek, erlijio-konfesioek eta -elkarteek EAEko udalerrietan duten presentziari buruz eta haien beharrei buruz.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria. Egoitza Santuarekiko eta beste eliza, erlijio-konfesio eta -elkarte batzuekiko akordioak

Lege honetan ezarritakoak ez ditu eragozten Egoitza Santuarekin izenpetutako akordioak, ez eta Estatuak elizekin, erlijio-konfesioekin eta -elkarteekin sinatutako lankidetzak-akordioak onartzen dituzten lege-mailako arauak ere.

Bigarren xedapen gehigarria. Lizentziak lortzeko egiaztapena

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten elizek, erlijio-konfesioek eta -elkarteek Erlijio Erakundeen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, hirigintza-lizentzia eskatzeko eta kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko

Artículo 16. Funciones

El Consejo Interreligioso Vasco tendrá, entre otras, las siguientes funciones:

- a) Asesorar a las instituciones vascas y colaborar con estas en el desarrollo de las políticas orientadas al ejercicio de la libertad religiosa y a evitar cualquier forma de discriminación.
- b) Asesorar a las instituciones vascas y colaborar con estas en la promoción de una convivencia interreligiosa e intercultural, integrada e integradora, y opuesta a cualquier forma de terrorismo, violencia, racismo, xenofobia o cualquier otra forma de imposición, coacción o discriminación religiosa.
- c) Elaborar informes y dictámenes a solicitud de las propias instituciones o de las comunidades religiosas.
- d) Asesorar en las consultas que se planteen a instancia de las instituciones y de las confesiones religiosas en la fase previa del procedimiento de apertura de lugares o centros de culto.
- e) Realizar el seguimiento de planeamiento urbanístico municipal, a efectos de elaborar diagnósticos y mapas de la presencia de iglesias, confesiones y comunidades religiosas y sus necesidades en los municipios de Euskadi.


DISPOSICIONES ADICIONALES

Disposición adicional primera. Acuerdos con la Santa Sede y otras iglesias, confesiones y comunidades religiosas

Lo establecido por la presente ley se entiende sin perjuicio de los acuerdos suscritos con la Santa Sede y de las normas con rango de ley que aprueban los acuerdos de cooperación firmados por el Estado con las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas.

Disposición adicional segunda. Acreditación para la obtención de licencias

Las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas que desarrollen su actividad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para poder solicitar la licencia urbanística y presentar la comunicación de apertura de lugares o centros de





komunikazioa aurkezteko edo 5. artikuluan aipatzen den noizean behingo erabilerarako lagapena edo baimena eskatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. Udalen hiri-antolamenduko plan orokorrak lege honetara egokitzea

1. Seigarren artikuluan ezartzen diren eskakizunak aplikagarri zaizkie lege hau indarrean jartzen den unean izapidetze-egoeran edo berrikuste-prozesuan dauden hiri-antolamendurako plan orokorrei, oraindik behin betiko onarpena jaso ez badute.
2. Hiri-antolamendurako plan orokorra 6. artikuluko zehaztapenetara egokituta ez daukaten udalerriek, ahal dela, zehaztapan horietara egokitu beharko dute plana, lege hau indarrean jarri ondoren onartzen den hirigintza-plangintzaren lehenengo berrikuspenean.
3. Udalerriek, edozein kasutan, honako lege honen 6. artikulua eskakizunetara egokitu behar dute beren plangintza orokorra, indarrean sartzen denetik 8 urteko epean; horretarako, indarrean dagoen legeriak hirigintza-antolamendua berrikusteko edo unean-unean aldatzeko ezartzen dituen aukerak erabiliko dituzte.
4. Ahal den guztietan, hasierako onarpenaren unean edo, bestela, behin-behineko onarpenaren aurretik ekingo zaio planak 6. artikulua eskakizunetara egokitzeari.

Bigarren xedapen iragankorra. Kultu-lekuen edo -zentroen baldintza tekniko eta materialak egokitzeko aldia

Lege hau indarrean jartzean 13. artikuluan aipatzen diren gutxienezko eskakizun materialak eta teknikoak betetzen ez dituzten kultu-lekuek edo -zentroek erregelamenduz ezarriko den epea izango dute egokitzapen horiek egiteko.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa. Araudiaren garapena

Eskumena duten organoen ekimenez, lege hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko

culto y la cesión o autorización para el uso esporádico a que se refiere el artículo 5, habrán de acreditar su inscripción en el Registro de Entidades Religiosas.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Disposición transitoria primera. Adaptación a la ley de los planes generales de ordenación urbana

1. Las exigencias establecidas por el artículo 6 son aplicables a los planes generales de ordenación urbana que, estando en tramitación o en proceso de revisión en el momento de la entrada en vigor de la presente ley, aún no hayan sido objeto de aprobación definitiva.
2. Aquellos municipios que carezcan de un plan general de ordenación urbana adaptado a las determinaciones del artículo 6 deberán, siempre que sea posible, proceder a su adaptación en la primera de las revisiones del planeamiento urbanístico que se apruebe tras la entrada en vigor de la presente ley.
3. Los municipios deben adecuar, en todo caso, su planeamiento general a las exigencias del artículo 6 de la presente ley, en el plazo de 8 años desde la entrada en vigor, utilizando para ello las posibilidades que para la modificación puntual o la revisión de su ordenación urbanística establece la legislación vigente.
4. Siempre que sea posible, la adaptación de los planes a las exigencias del artículo 6 se realizará en el momento de la aprobación inicial o, en su defecto, antes de la aprobación provisional.


Disposición transitoria segunda. Periodo de adaptación a las condiciones técnicas y materiales de los lugares o centros de culto

Los lugares o centros de culto que a la entrada en vigor de la presente ley no cumplan los requisitos técnicos y materiales mínimos a los que se refiere el artículo 13 dispondrán del periodo que reglamentariamente se determine para adaptarse a los mismos.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera. Desarrollo reglamentario

El Gobierno, a propuesta de los órganos competentes, dictará las disposiciones reglamentarias





xedapenak emango ditu Jaurlaritzak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarrean.

que sean necesarias para el desarrollo de la presente ley.

Disposición final segunda. Entrada en vigor

La presente ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

